

**2009-07-16**

## **EUSKAL TEATROA GERRA ZIBILEAN ETA GERRA ZIBILA EUSKAL TEATROAN**

### **PATRI URKIZU**

UNED

Gerra zibila eta ondorengo gerraostea suspertzen hasiberritako euskal kultura eta antzertiarentzat kolpe latza izan ziren. «Aitzol» eta «Lauaxeta» mugimendu euskaltzalearen bi pertsonaia funtsezko eta gailenen fusilamendua, eta nazionalista sutsu eta nabarmendu gehienen erbesteratze eta kartzelaratzeari, euskara erabiltzeko debekua, ... horrek guztiak haustura larria ekarri zuen.

Alabaina, 1937an jaio eta urte berean, Bilbo erortzearekin bat, zenduko zen *Eguna* lehenengo euskal egunkariaren garaiko kronikak jarraituz gero, faxistek okupatu gabeko eremuan hainbat antzezpenen berri topa dezakegu, hala nola Bilbon, otsailaren 11an, *Bilboko Euzko Gastedija* taldeak eskaini zuena. Emanaldi horretan Pearse-ren *Iru Gudari*, gaztelera, eta Soroaren *Ezer ez ta festa*, euskaraz jokatu ziren.

Hitzaldi honetan aztertuko dira zein dramaturgiatan kokatzen diren bai aipatu obra hauek, baita batipat Yeats- Sota-Altuna-ren , *Negarrez igaro zan atsua*, S. Arana / M. Sota-ren, *Libe*, A. Campión-A. Etxabe, *Pedro Mari*; hala nola bereziki gerra gaitzat harturik honoko antzerkigileak moldatu eta antzeztarazitako lanak: Antonio Ruiz de Azua "Ogoñope", *Euzkadi'ko erri baten* (Ekin, Mexico, 1950); Antonio Labaien, *Lurrikara* (Euzko Gogoa, Miarritze 1955); Jean-Louis Davant, *Agirre presidenta* (Arrokiaga, 1995); Carlos Panera, *Lauaxeta, herri antzerkija* (Bilbao, 2005)....

### Bibliografia

ALZAGA (T.), *Ezer ez ta festa. Marzelino Soroa 'k idatzitako jostirudiaren antolapen berria*. Antzerki Salla, 15.zb., Donostia, Martín, Mena & Cia., 1922

AMUNDARAIN (A.), *iUste diñat! iYa lo creo!*. Donostia, Loyola 'tar Eneko Deuna 'ren irarkola, 1914.

ARANA (S.), *Libe*. Bilbao, Tipografía Universal, 1903.

ARANA MARTIJA (J.A.), *Elai-Alai. Euskalherriko lehenengo koreografi taldea. Primer grupo coreográfico del País Vasco*. Gernikako kultur taldea 1977.

ARANA MARTIJA (J.A.), *Eresoinka: Embajada cultural vasca 1937-39*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1986.

ARTOLA (J.), *Šabiroya jostirudia egintza batian*. San Sebastián, J. Baroja é hijo, 1903.

DAVANT (J.L.), *Agirre presidenta, pastoral*. Arrokiaga, Pyrénées-Affiches 1995.

ETXABE (A.), *Pedro Mari*. Bilbao, E. Verdes, 1932.

HARANBURU (L.), *Gernika (Drama historikoa bi partetan berezia)*. Donostia, Kriselu, 1977.

LABAIEN (A.), *Lurrikara*. Miarritze, Euzko Gogoa, 1955.

RUIZ DE AZUA (A.), *Euzkadi 'ko erri baten*. México, Ekin, 1950.

SOTA (M.), *Negarrez igaro zan atsua*. Joseba Altunaren itzulpena. Bilbao, Verdes, 1932.

SOTA (M.), *Iru gudari*. Esteban Urkiaga "Lauaxetaren itzulpena. Bilbao, Euzkadi, 1933.

URKIZU (P.), *Exiliatuok ez gara inongoak*. Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 1995.

URQUIZU (P.), "La cultura del exilio vasco en eusquera", in ABELLÁN (J.L. ) et al., *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*. Madrid, Biblioteca Nueva, 2000, 99-145.

URQUIZU (P.), *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*. Madrid, UNED, 2009.